

JON MIRANDA LABAÏEN



ASTEASU HARREMANTZEN BERRIKASIZ

Indarkeria matxistaren inguruko lanketa taldea osatu dute, Asteasun, 25 urtez azpiko gizon-emakumeek; Arremanitz kooperatiba ari da proiektua dinamizatzen, eta udala eta foru aldundia dira egitasmoaren sustatzaile nagusiak // 4

Osasungintza publikorako elkarlanera deitu du, berriz, EH Bilduk

Asuncion klinikaren inguruan azken hilabeteotan sortutako albisteen harira, agerraldia egin du Tolosaldeko EH Bilduk // 2



Helduentzako ipuinak kontatuko ditu Ines Bengoak, Ibarran

Ahozko literaturaren tradizioa berreskuratu asmoz, iturrien bueltan elkartzeko ohiturari eutsiko dio, Bengoak, kultur etxeko saioan // 6



- 1 EUREKA zientzia museoa**
Bi laguntzako bina sarrera konbinatu (museo eta planetariuma)

www.eurekamuseoa.es/eu
943012478

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



eureka!
zientzia museoa
kultura fundazioa

harpidedun izateak badu saria zozketa

- 2 DONOSTIAKO AQUARIUMA**
Bi laguntzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

- 3 BASONDO FAUNA BABESLEKUA**
Familiarentzako sarrera bikoitz bi (nagusia+umea)

94 625 44 36
www.basondo.com/eus/
info@basondo.com
Kortezubi (Bizkaia)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Osasun kudeaketa publikoaren alde lan egin nahi du EH Bilduk

Eskualdeko osasungintzaren egoera aintzat hartu, eta bide berri batean aritzeko borondatea azaldu du Tolosaldeko EH Bilduk, Asuncion Klinikako proiektua aztertuz

Josu Artutxa Tolosa

Azken hilabeteetan eskualdean osasungintzak eman dituen berri guztiek zabalpen mediatiko bera izan ez dutela-eta, agerraldia egin zuen, atzo, Tolosaldeko EH Bilduk. Osasun kudeaketa publikoaren alde lan egiteko borondatea erakutsi nahi izan zuten, TOPak eta Eskualdeko Lan Mahaia argitaratutako «datu esanguratsuak» kontuan hartuz.

Kritsina Pelaez Tolosako EH Bilduko zinegotziak adierazi zuenez, «Osasun Sailak Asuncion Klinikarekin duen hitzarmenak, eskualdeko osasun gas-tuan urtean 10 milioi euroko murrizketa egitea ahalbidetzen dio, eta hori ez da aurrezte, zerbitzuaren kalitatea okertzea baizik». Itun horrek iraundako zazpi urteetako datuak «eskandaluzkoak» direla adierazi zuen.

Osasun arreta «pribatizatuta» egoteak dakartzan ondorioak «kaltegarriak» direla ere aipatu zuen. «Ez soilik zerbitzuaren eta arretaren kalitatean, baita langileen baldintzetan ere». Horren harira, gaur egun langileen ratioak txikiagoak direla ere gogorazti nahi izan zuen: «Langileen heren bat gutxiago dago, eta lan kargak hazi dira; horrek arretaren kalitatean eragin du».

Atzoko prentsaurrekoan, gainera, udaletxeetako ateak «zabalik» dituztela jakinarazi nahi



EH Bilduko kideek Tolosako Bilgunean egin zuten prentsaurrekoa. J.A.

izan zieten, EH Bilduko kideek, TOPari eta Eskualdeko Lan Mahaia. «Beharrezkoa ikusten dugu informazioa herritarrekin eta erabiltzaileekin partekatzea, guztiek horren berri izateko».

KEZKA ASKO, PROPOSAMEN BAT

Osasun Sailak urteetan Tolosaldean izan duen inbertsio ekonomiko faltaren datuak argitaratu direla-eta, «ospitale publiko bat ez duen eskualde bakarra» dela gogorarazteaz gain, Asuncion Klinikatik «arrapaladan» heldu diren berriak ere mintzagai izan zituzten. Batetik, Assumptio Proinova fundazio berriaren sorrera; bestetik, datozen hiru urteetan egitekoak diren eraberritze lanak.

Pelaezek azaldu zuenez, «kezkakuta» daude: «Irabazi asmorik gabeko fundazioa ez ote dute erabiliko, Invizaren irabazi as-

moak zurrizteko». Bestetik, zailtasuna dute, «hiru urtetako zazpi milioi euroko berritze lanekin, Osakidetza egin gabeko inbertsioak ezkutatu nahiko ote dituzten ala ez. Izan ere, berritze lan horiek datozen 25 urteetako klinikaren beharrak asetuko dituzte, eta horrek hainbat kezka sortzen dizkigu».

Inbertsio horrek langileen egoera «ez duela konpontzen» argudiatu nahi izan zuen EH Bilduk. Beraien ustez, egoera hau «luzaezina da, eta ez da eskualdeak behar duen proiektua». Kudeaketa publikoaren alde lanean jarraitu behar dutela nabarmendu zuten, beharrezko baliabideak, eta langile eta erabiltzaileen eskubideak bermatuko dituen kalitatezko osasun arreta bat «beharrezkoa» ikusten dutelako.

Maiatzean aurkeztu zuten Tolosaldeko osasungintza publikorako proposamena, Asuncionen hiru adarrak –klinika, anbulantziak eta etxerako mediku eta erizainak– publiko egiteko eskatuz: «Ez gara horretan gelditu, eta lanean dihardugu, ekarpen berriek proposamena sakontzeko aukera eman baitute».

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Tolosako 100 ikaslek 60 zuhaitz landatuko dituzte

Gaur egingo dute landatzea Laskorain ikastolako ikasleek, irakasleekin batera. Ikasturtean zeharreko Eskola Agenda 21 proiektuaren barruan dago egitasmoa

J. Artutxa Tolosa

Tolosako Ingurumen Sailak eta Tolosako Ingurumen Zentroak zuhaitzen inguruko proiektu batean dihardute, herriko ikasleekin elkarlanean. Hori dela eta, gaur zuhaitzak landatuko dituzte, suhiltzaileen parkearen pareko eremuan.

Duela lau urte hasi ziren, Tolosako ikasleek, lan horrekin, eta urtero egin dituzte landatzeak, herriko zenbait gunetan. Gaur, Laskorain ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako 100

ikaslek izango dute ardura. Irakasleek gain, TIZ eta Goroldi taldeko adituek ere lagunduko dute. TIZeko ordezkariak azaldu dute zuhaitz osasuntsuek zoru osasuntsuak behar dituztela: «Eta herria apaintzeaz gain, badituzte bestelako onurak».

Landatzeaz gain, Joseba Parron San Sebastianen *Hostoak baino gehiago* argazki erakusketari jarri dute ikasleekin. Bestetik, hainbat tailer antolatu dituzte, hala nola, tribial txiki bat, edo Instagram bidezko argazki leihaketa.



MEDIKU BATEN BEHARRA

Amarotz auzoko kideek, bertako Auzoetxean, urteroko batzarra ospatu zuten, joan den astean. Auzoko medikuaren egoerarena izan zen gaietako bat, Javi Arana medikua bertan zela. Berak, berez, erretiratuta egon beharko luke, baina oraindik ere lanean dihardu, «beste irtenbiderik ez» duelako: «Auzotarrei dagokie, orain, ahal den guztia egitea. Asko adinean gora doaz, eta osasuna behar bat da eurentzat». J.A.

Iurreamendi auzoko parke bat kendu, eta berria jarriko dute

TOLOSA // Inauterien ondoren, Iurreamendi pasealekuko 15 eta 17 zenbakien atarien artean dagoen parkea eraberrituko du udalak. Eraberritzea 2017ko apirilean udalak egindako *Tolosako jolas parkeen diagnosia* izeneko ikerketaren ondorioa da. Lanek sei asteko iraupena izango dute. 2018ko aurrekontuetan sartzen da parke horren eraberritzea, eta udalak 61.452,62 euroko inbertsioa egingo du.

Zeinu hizkuntzako oinarritzako ikastaroa DBHko ikasleentzat

TOLOSALDEA // Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkartek antolatuta, Tolosa eta Ibarrako ikasleek 20 orduko ikastaroan parte hartzeko aukera dute. Martxoaren 7an hasi eta hilaren 28an amaituko da. Klaseak astearte eta ostegun arratsaldetan izango dira. Doakoa da, baina, gehienez, 16 ikaslek hartu dezakete parte. Izena emateko, gainditzent-g@hotmail.com helbidera mezua idatzi behar da.



Martxoaren 8ko afarirako izena eman behar da

BIDANIA-GOIAITZ // Martxoaren 8ko eguna antolatu dute Bidania-Goiatzen. 20:00etan, elkarretaratze zaratatsua egingo dute, Bidaniako frontoiaren aurrean. 21:00etan, afaria, bertso-lariekin, Saiaz elkartean. Izena eman behar da eta, lekua mugatua denez, lehenbailehen egiteko deia egin dute. Otsailaren 28a da izena emateko azken eguna, eta 625 70 70 94an edo 618 86 88 31an eman daiteke.

Martxoaren 8ari begirako egitasmoak antolatzeko bilera

IKAZTEGIETA // Emakumeen Nazioarteko Egunari begirako egitasmoak antolatzeko bilera deitu dute. Otsailaren 26an, astear- tean, 18:30ean, elkartuko dira udaletxeko balio anitzeko gelan: *Martxoaren 8aren inguruan zer egingo dugu? Edo zer nahi dugu? Zer egin beharko genuke?* Kultura Batzordetik, herritar guztiak animatu nahi dituzte bileran parte hartzera, guztien artean ekitaldiak antolatzeko.

Olinpotik Valhalara saioa izango da, bihar, Atxulondo tabernan

ZIZURKIL // Zizurkilen Sagardoa- ren Kondairak jarraipena izango du, bihar, hilak 22, 19:00etan. Artea, gastronomia eta sagardoa uztartuko dituzte, SagarArte egitasmoaren barruan. Aste hone- tako saioaren izena Olinpotik Valhalara izango da. Atxulondo tabernan egingo dute, eta garai hartako kondairaren berri izate- ko aukera paregabea izango da bertan. Pintxo ederrez eta girora egokitutako edariez lagunduko dute.

Emakumeen Eguna ospatzeko bazkarian izena eman daiteke

ABALTZISKETA // Aurten ere, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko, abaltzisketa- rrek bazkari bat antolatu dute, martxoaren 8rako. Ostiralez egokitu da eguna, eta bazkaria Abaltzisketako Ostatuan izango da, 14:00etan hasita. Izena, ordean, udaletxean eman behar- ko da, eta horretarako azken eguna martxoaren 1a, ostirala, izango da.

Amasa-Villabonako giza eskubideen urraketak jasoko ditu Aranzadik

1960 eta 2019 urteen artean gertatuko giza eskubideen urraketak jaso dituzte, udaleko Memoria eta Bizikidetzaren enkarguz

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaleko Memoria eta Bizikidetzaren enkarguz egingo du lana, Aranzadi zientzia elkarteak, eta dagoene- ko iragri ditu helburu zehatzak, metodologia proposamena eta lan egutegia.

Azken hamarkadetan, giza es- kubideen urraketak jaso dituz- ten Amasa-Villabonako biktima guztiak identifikatzea, eta bakea zein elkarbizitza sendotzea dira, ikerketa lan horren helburu na- gusiak.

Hiru helburu nagusi proposa-

tu dituzte: lehenik eta behin, bo- tere publikoek bultzatu behar duten memoria kolektiboan txertatzea, gertatukoaren ingu- ruko egia, zeina ezagutzeko es- kubidea duten biktimek; biga- rrenik, gertatutako giza eskubi- deen urraketa horien inguruan justizia egitea, horretarako, bo- tere publikoek, bultza ditzakete- en ekintzak sustatuz; eta, azke- nik, ordain material eta ez mate- rialerako biktimek duten eskubidea errespetatzea.


Metodologiari dagokionez, gi- zarte eragile eta eragile politiko- ekin topaketak egitea aurreikusi

dute, biktima edo familiartekoe- kin kontaktuak egin, eta iturri historikoen askotariko analisiak gauzatzuz.

Giza eskubideen aurka egin- dako ekintzen datu basea zehaz- tuko du lanak. Analisi horretan, testigantza pertsonalen inguru- ko generoaren ikuspegia ere ja- soko dute, emakume eta gizonen arteko oreka mantenduz.

Ikerketa lana 2019. urtean ze- har egingo dute. Egutegian ze- haztu duten bezala, gainera, 2020an argitara emango dituzte lanaren ondorioak, eta gaiaren inguruko liburua idatziko dute.

Zubiak itxura berritua izango du



Behin lanak amaituta, Lejarretako zubiak izango duen itxura. ATARIA

J. Miranda Amasa-Villabona

Martxoaren amaieran edo apiri- laren hasieran hasiko dira, Sa- cem zubiaren birmoldaketa la- nak. Bide komunikazio moderno eta argiztatuari paso emango dio, eta oinezkoentzat eta trafi- koarentzat leku desberdina edu- kiko ditu.

Gaur egungo zubia 1930eko hamarkadako lehenengo urtee- tan eraiki zen. Sei pilaretan sos- tengatzen da, zazpi baoz osatuta dago, eta 100 metroko luzera dauka. 5,6 metroko zabalera ba- tean, ibilgailuek eta oinezkoek

galtzada partekatzen dute, eta horrek egoera arriskutsuak sor- tzen ditu, batez ere, ibilgailu as- tunak igarotzen direnean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen obrarekin, Villabo- nako zubiaren taularen alde ba- koitzean Corten altzairuzko egi- tura bana erantsiko zaio, gaur egungo 5,6 metroko zabalera hori, alde bakoitzean 80 zenti- metro handituz, eta 7,2 metrora- ino zabalduz. Hau horrela, ibil- gailuentzat 3,5 metroko zabale- rako galtzada lortuko da, eta 2 metroko zabalerako eta baranda batez banatutako oinezkoentza-

ko espaloia. Barandan bertan ko- katuko dute zubiaren argiztape- na, eta led motako argiak egongo dira zortzi puntutan.

Atzerapen txiki bat egon da, horrelako lanetan gertatzen den moduan, lehiaketa publikoko es- kaintza aurkezpenak hutsik gel- ditu baitziren. Errepideen sarea- rekin harreman estua manten- tzen ari da udala, eta lanak martxoaren amaieran edo apiri- laren hasieran hasiko dira. Insti- tuzio arteko elkarlana oso era- ginkorra izaten ari da eta, uda hasierarako, Lejarretako zubi za- harrak itxura berria izango du.

Saskibaloi talde bat osatzeko lehen bilera irekia egingo dute, Alegian

16 urtetik gorako emakumezko zein gizonezkoei zuzendutako deialdia da; hilaren 26an egingo dute bilera

Erredakzioa Alegia

Alegiako herritar talde baten bo- rondatez, Alegian saskibaloi tal- de bat sortzeko ideia indarra har- tzen ari da. Egitasmoaren bul- tzatzaileek bi taldez osaturiko klub bat sortu nahi dute, eta guz- tiari buruz hitz egiteko bilera ire- kia hilaren 26an, 19:00etan, kul- tur etxean egingo dute. Talde ho- rietako bat emakumezkoena izango litzateke, eta bestea gizo- nezkoena; bi kasuetan, 16 urtetik gorako kidez osatuta.

Klub bat eratzeak pauso ugari ematea eskatzen du, taldeak osa- tzeaz gain. Saskibaloirako afi- zioa duten 16 urtetik gorako he- rritar guztiak bertaratzera deitu dituzte, eta baita klubaren era- tzean edo bestelako lanetan la- gundu nahi dutenei ere.

FESTAK ANTOLATZEKO BILERA

Festa batzordeak lehen bilera egingo du, astelehenean, hilak 25, 17:00etan, kultur etxean. Uz- taileko Karmen jaiei begira lane- an hasiko dira.

Ohi bezala, proposamenak di- tuzten herritarrei batzordeko atea zabalik dutela gogorarazi diete.

Villabonako PSE-EEK bere lanaren berri emango du

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaleko PSE-EEK, esku orri baten bidez, legealdi honetan egin duen lana- ren berri zabalduko duela adie- razi du. 2.600 ale banatuko di- tuzte. Maria Luisa Arija zinego- tziak atez atekoa kendu izana nabarmendu nahi izan du, bos- garren edukiontzia jarritz. Eta, gi- zarte gaietan, besteak beste, he- rriko komertzio txikia bultzatu dutela, eta bi etxebizitza egokitu dituztela, gizarte zerbitzuetara- ko.

Jon Miranda Asteasu

Asteasuko Udalak badu kezka indarkeria matxistarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 10.000 biztanletik beherako udalerriei begira, Berdinbidean programa du martxan, 2010etik. Lerro estrategiko batzuk eskaintzen ditu programak, lantzeko, eta, aurretik emakumeen jabekuntzarekin egin zuten bezala, orain, Asteasun, gazteekin jorratu nahi dute indarkeria matxista. 2018ko udazkenean abiatu zuten lanketa eta, herriko gazteek beraiek eskatuta, urte berriarekin jarraitzen dute. Udalak egitasmoa babestu du.

Asteasuko 25 urtez azpiko dozena bat gazte hartu dute parte, orain arte, prozesuan. Urrian egin zuten lehen bilerara mutil bakarra bertaratu zen, eta gero batu dira gainerakoak, nagusiki, «ahoz aho» zabaldu baita herrian, talde sortu berriaren lana. Gaur egun, erdiak dira mutilak eta erdiak neskak. «Lan berezia eta berezitua» egiten dute batzuekin zein besteekin, Axier Blagietto Arremanitz kooperatibako kideak aipatu duenez. Udalak prozesua dinamizatzeko jo du kooperatibara, eta udazkenean egindako bileretan parte hartzaileek beraiek zehaztu zituzten zein behar zituzten. «Urte berriarekin egin ditugun bileretan, saioaren lehen zatian, alde batetik neskak eta bestetik mutilak elkartu izan gara eta, bigarren zatian, denok elkartu eta landutakoa konpartitu izan dugu».

Aurreko larunbatean, adibidez, autodefentsaren gaiari heldu zioten neskek, aurretik beren aldetik sumatu zuten behar bati erantzunez. «Indarrarekin lanean ibili gara, hori gorpuzten». Taldean bertan gaiari buruz ezagutza duen emakume batek gidatu zuen saioa. «Aliantza honetan, dauzkagun baliabideak konpartitzea garrantzi-



Hilean behingo saioetan, lehen partean berezita egiten dute lanketa, eta ondoren komunean jartzen dute ikasiakoa. J.M.

Tratu txarretatik tratu onetara pasatu nahi dute Asteasun

25 urtez azpiko dozena bat gazte ari dira, indarkeria matxistaz hausnartu eta harreman eredu berriak sortzen, Arremanitz kooperatibak gidatuta

tsua da, jendea kanpotik ekarri gabe».

Beren aldetik, kultur etxeko areto batean bildu ziren mutilak, larunbatean, eta horiek ere, indarkeria matxistaren inguruan iritziak partekatu zituzten: «Gai horrekiko gizonetzokook nola posizionatzen garen argitzen saia-

tu gara eta, ulertzen, zergatik sortzen diren, batzuetan, erresistentziak». Hitz egiteko tarte hartu ondoren, gorputzei arreta jartzeko okasioa izan zutela aipatu du Blagiettok. «Interesgarria izan da, ikustea, nola behar-beharrezkoa dugun, gizonetzokook, kontaktu fisikoa. Babes

hitza askotan agertu da, emozionalki bestea gertu sentitu behar dugu. Horren faltan gaude nean, bakardade eta isolamendu horretatik, askoz ere errazagoa baita, indarkeria jarretara gerturatzea. Beharrezkoa dugu humanoki ditugun beharrak asetzea».

ESPASIO SEGURUA SORTU DUTE

Taldean parte hartzen duen emakume batek azpimarratu duenez, «polita» izan da orain artekoa: «Nik ez nuen horrelakorik bilatzen, eta ez nuen espero, baina espazio seguru bat sortu da, oso sanoa, gainera». Parte hartzaile guztiek elkar ezagutzen zuten lehenagotik, baina taldean egiten ari diren lanketari esker harremanak «estutu» egin dituztela nabarmendu dute. «Nik badakit, muturreko egoera batean, hemen dauden pertsona guztiak konplize izango ditudala. Beraiek badakite une horretan nola sentituko naizen, eta laguntzeko prest agertuko zaizkit», esan du emakumeetako batek.

«Ulermena eta konfiantza» azpimarratu dituzte prozesuan parte hartzen ari diren guztiek. Mutiletako baten esanetan, gai horiei buruz hitz egiteko «aurretiazko jarrera positiboa» darabate kideek, taldera. «Badakigu minduta senti gaitezkeela momenturen batean, baina ez dela inoiz intentzio txarrarekin eginga izango. Ni, adibidez, ez naiz inoiz epaitua sentitu. Egiten diren kritika guztiak eraikitzaileak dira, horrelako eremuetatik kanpo sarritan pasatzen ez dena». Blagietto ere bat dator: «Eremu intimo bat sortzen ari gara, konfiantzazkoa eta epairik gabea. Espazio bat da, non gizonetzokook zaurgarri ager gaitezkeen; non hausnar dezakegun, nola egin garen gizon, nola ikasi dugun gizon faxada hori eraikitzen. Bide luzea da, badakigu, baina eraginkorra izango da, gure zauriei begiratu, eta gu sendatzeko bali duen neurrian».

Aukera berriak probatu eta sortu nahi dituzte Asteasun. «Benetako alternatiba bat sortu nahi badugu, eraikitzea da kontua», esan du emakumeetako batek. Tratu txarren inguruan baino, tratu onak asmatzen jardun nahi lukete aurrerantzean.



Elbarrena industrialdea Zaldibia
Tel.: 943 88 82 32

www.jaiakdenda.com

Inauteriak 2018

Zatoz JAIAKera! Aurten ere moztro eta osagarri eskaintza zabala zure esku

Katalogoa, web orrian. Online salmenta ere bai
Dendako ordutegia: 9:30-13:30 eta 15:00-20:00



Kotxe karabana, bihar, soldata arrakalaren aurka

Erredakzioa Tolosa

Emakume eta gizonen soldata berdintasunaren aldeko eguna da gaur. Horren harira, eta martxoak 8ko greba feministara dei egiteko aprobetxatuz, kotxe karabana antolatu du LABek. Sindikatu abertzaleak adierazi duenez, «soldata arrakala ez da kopuru bat, arazo politiko bat da».

Bi karabana abiatuko dira Tolosarantz, 10:00etan. Bat, Olabe-

rriako Carrefour supermerkatutik abiatuko da, eta, bestea, Urbil merkatalgunetik. Biek bat 12:00ak aldera egingo dute, Tolosako Eroskin.

Emakunderen arabera, EAEko emakumeek, urtean, 7.573 euro gutxiago irabazten dituzte, gizonen baino. Berdin gertatzen da pentsioekin ere: EAEko emakumeen batezbesteko erretiro pentsioa, gizonena baino %43 txikia goa da.



Adarra mendia. ATARIA

Onddi eta Adarra mendietara joateko ireteera, larunbatean

BERROBI // Ibin Kirol Klubak antolatuta, Berrobiko herritarrek Onddi eta Adarra mendietara joateko aukera izango dute larunbatean. 08:00etan geratu dira Berrobin, eta Urnietako Besabitik aterako dira, 12 km-ko ibilbidea osatzeko. Bakoitzak bere hamaiketako eraman beharko du, eta 12:00etan aurreikusten dute, Berrobira bueltatzea.

Bizi Nahi elkartekoek Tafalla eta Castejon bisitatuko dituzte

IBARRA // Martxoaren 9rako Tafalla eta Castejonera irteera antolatu dute, Bizi Nahi elkartekoek. Goizean zehar Tafallan ibiliko dira, eta bazkaltzera joango dira Castejonera. Itzuleran, litekeena da, Iruñean geldialdia egitea. Otsailaren 25ean, 10:00etatik aurrera eman ahalko da ize-na, Bizi Nahi elkartearen.

‘Mozorroaz haratago’ hitzaldia, Ibarako Galtzaundi tabernan

IBARRA // Aitzpea Leizaola antropologo eta EHUko irakasleak *Mozorroaz haratago. Inauteriak Euskal Herrian gauregun* hitzaldia eskainiko du, gaur, 18:30ean, Ibarako Galtzaundi tabernan. Leizaolaren iker lerroetako bat dira euskal inauteriak, eta horien aldaketen inguruan jardungo du, gaurko hitzorduan.

Asteburuan ospatuko dituzte inauteriak berastegiarrek

Bihar eguerdian hasiko dituzte inauteriak, Berastegin. Pintxo pote mozorrotuarekin amaituko dute eguna, eta larunbata izango dute indartsuena, goizetik gaureako egitaraua antolatu baitute.

Irati Saizar Artola Berastegi

Kaldereroentzat lekurik utzi gabe ospatu ohi dituzte inauteriak, Berastegin. Bihar eguerdian hasi, eta larunbatean egun guztiko egitaraua antolatu dute.

Orain arte, ez dute lortu ostira-lean jende guztia kalera mozorrotuta irtetea eta, aurtan, hori bultzatu eta nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek: «Pintxo potera mozorrotuta ateratzeko deia egin nahi diegu herritarrei, inauteriei kolore pixka bat ematea garrantzitsua iruditzen baitzaigu». Pintxo potearen aurretik, herriko gaztetxoek ikasturtean zehar ikasi dituzten dantzak eskainiko dituzte herritarren aurrean eta, haiei musika jartzen, herriko txistulari zein trikitilariak arituko dira.

Larunbatean bai, jendeak badu mozorrotzeko ohitura. Normalean, taldeka egiten dute eta, bazkaldu aurretik, mozorro desfilea eta koreografia ikuskitzen dituzte plazan. «Urte-tik urtera jende gehiago ari da animatzen, eta pozgarria da, ikustea, jendeak zenbat denbora eskaintzen dion desfilea prestatzeari», azaldu dute antolatzaileek. Giroa berotuta izaten dute ordurako, aurretik, hamaiketako egin, eta jolasak egiten baitituzte. Emanaldiaren ostean, bazkaltzera eseriko dira herritarrak, eta bazkaria norberak eman behar-



Iazko inauterietan, lagun talde bat etxean bezala ibili zen herriko plazan. M. IRAOLA

INAUTERIETAKO EGITARAUA

Otsailak 22, ostirala

14:45. Eskolako haurrek desfilea egingo dute. Eskolatik abiatu, eta herrian zehar buelta egingo dute.
16:00. Desfilearen amaiera, eskola atarian dantza eginez.
Ondoren. Txokolate jatea, Guraso Elkartearen eskutik.
17:30. Haurren dantza, trikiti eta txistu emanaldia eskola atarian.
19:00. Pintxo potea. Mozorrotuta joan beharko da.

Otsailak 23, larunbata

11:30. Hamaiketako plazan, Urepele elkartearen eskutik.
Jarraian. Altzorraren bila jokoa gazte zein helduentzat.
13:00. Mozorroren desfile eta koreografiak, plazan.
14:00. Herri bazkaria.
18:00. Matraka elektrotzaranga, tabernaz taberna.
Iluntzean. Luntxa eta DJ Josu Rodriguez, Urepele elkartean.

ko du; antolakuntzak ogia, edaria, kafea eta kopak jarriko ditu. Bazkalondoren, iazko «arrakasta mantendu» nahi izan dute, Matraka elektrotzarangarekin. He-

rriko tabernetan barrena buelta bat emango dute. Gauerako, berriaz, luntxa prestatuko dute, Urepele Elkartean, eta DJ Josu Rodriguezek alaituko du gauda.

Etkez etxeko zerbitzurako langile bat kontratatuko dute

BERASTEGI // Berastegiko Udalak langile bat kontratatuko du Etkez Etxeko Laguntza eta Etxebizitza Babestuetako jardueretarako. Interesa duenak, otsailaren 26ra bitarteko epea izango du, eskabidea eta curriculum vitae-a udal-etxean aurkezteko. Lan kontratuak urtebeteko iraupena izango du, eta martxoaren 14tik aurrera hasiko litzateke.



TXOOOTX
ANIMATU!!
URTARRILAK 19
APIRILAK 27
TOLOSATIK AUTOBUSA

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM



goya.
T. 943 655 224
www.carnicagoya.com
Pol. Ind. Benta-Aldea, 4 - 20270 ANOETA (Gipuzkoa)

SALMENTA ZUZENA

Helduei zuzendutako ipuin kontaketa egingo dute, gaur, Ibarrako kultur etxean, 19:00etan. Ines Bengoa izango da ipuin kontalaria, eta iturriarekin lotura zuzena izango dute istorioek

Ohitura gal ez dadin

Irati Urdalleta Lete

Herri ipuinak ez dira liburuetan idatzita egoteko, ahoz aho zabaltzeko baizik. Ohitura hori galtzen ari da, ordea, eta berreskuratu egin nahi du Ines Bengoa ipuin kontalaria. Horretarako, helduentzako ipuinak kontatuko ditu, Ibarrako kultur etxean, gaur, 19:00etatik aurrera.

Herri ipuinak izango dira guztiak. «Lehen ohitura handiagoa zegoen elkarri istorioak kontatzeko, ez bakarrik txisteak edo pasadizoak, baizik eta istorioak. Nik horixe egin behar dut», azaldu du Bengoak. Publiko guztia-
rentzako istorioak dira, baina duten mezua helduek hobeto ulertuko dute.

Iturri zaharreko istorioak ize-
na jarri dio saioari. Garai batean, iturriak elkartzeko lekua ziren. Emakumeek arropa garbitzen zuten bertan, gizonak abereak eramaten zituzten ura edatera, eta haurrak ere bertan egoten zi-

«Lehen ohitura handiagoa zegoen istorioak kontatzeko, ez bakarrik txisteak edo pasadizoak»

ren, jolasten edo etxerako ura hartzen. Orduetik bizimodua asko aldatu da, eta beste ohitura batzuk daude orain. Iturriak badira herrietan eta hirietan, baina ez dira, lehengo moduan, elkar-gune bat. «Ni kontalaria naizen aldetik, beti istorioak dauden tokiak bilatzen ditut, eta iruditzen



Ines Bengoa ipuin kontalaria helduentzako ipuinak kontatuko ditu, Ibarra, 19:00etan. ATARIA

zait iturria horietako bat dela. Horregatik egin dut ipuin saio hau», dio Bengoak.

MOTA ASKOTAKO ISTORIOAK

Kontatuko dituen istorioek, gehienbat, herriko jendearen jakinduriaz hitz egingo dute. Bengoak azaldu duenez, ahularen alde egiten dute herri ipuinek eta, boteretik ez daukatenei, eman egiten diete. Berak horrelako istorioak kontatzea erabaki du Ibarra saioan. Gainera, beste ipuin bat ere aukeratu du, herri ipuin guztiak matxistak ez direla erakusteko: «Badaude emakumezko protagonistak dituzten herri ipuinak, inoiz entzun izan ez ditugunak», dio Bengoak.

Kontatuko dituen istorioak penintsula osokoak dira, eskualde inguruko bakarren bat ere hartu duen arren. Herri ipuinak

«Istorioak entzuteko ohitura galdu denez, ipuinak kontatzen dizkigutenean asko eskertzen dugu»

errepikatu egiten dira, eta oso antzekoak dira leku desberdinetan. Bengoak dioenez, orain arte herri ipuinak ahoz aho zabaltzeko, «Asian kontatzen diren istorioak eta hemen kontatzen direnak antzekoak» dira. «Bitxia da oso, baina, era berean, poza ematen dit, elkartzeko gaituen

zerbait dagoelako istorioetan». Kultura desberdinak direla ematen duen arren, gauza antzekoei buruz hitz egiten dute: beharrei buruz, beldurrei buruz...

Ibarrako saioan umorea oso presente egongo da. Horrez gain, herriaren jakinduria ere landuko dute, eta emakumeak ere protagonista izango dira.

GARAI BERRIAK, FUNTZIO BERA

Garai batean, entretenitzeko ziren ipuin kontaketa, eta edozein momentu zen ona horretarako. Gaur egun, berriz, lekua aurkitu behar da. «Ez daukagu ohiturarik gauzak elkarri kontatzeko», dio Bengoak. Ogibideak ere bestelakoak ziren eta, neka-

zaritza mundu horren inguruan, herri ipuin asko kontatzen ziren. Bengoak kontatuko dituen istorioen artean mundu hori ere ikusten da: nekazariak, abeltzainak... «Pixka bat galtzen doan mundua da».

Iturri inguruko konfiantza giro hartan istorio lizunak kontatzea ez zen batere zaila, eta Bengoak horrelako istorioen bat ere kontatuko du.

14-15 urtetik gorakoei zuzendutako saioa izango da. Hain zuzen ere, Bengoak hiru publiko desberdini zuzendutako saioak antolatzen ditu: haurrentzakoak, gazteentzakoak eta helduentzakoak. «Helduen saioetara gazteak ere joan daitezke, baina denak gazteak diren saioetan, gazte horiek bestelako interes guñak izaten dituzte».

Bengoak ez da hasiberria istorio kontalaria. Hamabost urte baino gehiago daramatza, gehienak haurrekin. «Umeak mundialak dira. Ez daukate lotsarik, eta pentsatzen dutena esaten dizute, bai onerako, bai txarrerako», dio Bengoak. «Helduek, berriz, ez dituzte beraien sentimenduak hain erraz adierazten. Alde horretatik, umeak gustatzen zaizkit», gaineratu du. Hala ere, helduak ere gustuko dituela dio: «Istorioak entzuteko ohitura galdu denez, ipuinak kontatzen dizkigutenean, asko eskertzen dugu». Jendea bere ipuinak entzuterako joatea nahiko luke: «Nik entzuleei esango nieke, tarte hori beraientzako hartzeko». Bengoak dioenez, behar bat daukagu istorioak entzuteko, eta behar hori asetzeko aukera egongo da Ibarra.

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Sokari tinko eutsiz

Ibarra taldeko emakumezkoak 500 kilotan ari dira lehian, eta gizonezkoak 600 kilotan

Imanol Garcia Landa Ibarra

Denboraldi bete-betean sartuta daude Ibarra taldeko sokatira taldeko tiratzaileak. Emakumeen taldean 500 kilotan lehiatzen ari dira, eta lehenengo jardunaldian bosgarren geratu ziren. Ainara Otamendi tiratzaileak azaldu duenez, «ez genuen atera nahi izan genuen taldea, baina lehia bada-goela ikusi dugu, eta falta diren bi jardunaldietan gerra pixka bat emateko asmoarekin gaude». Gizonezkoetan, 600 kilotan ari dira lehiatzen. Bi jardunaldi egin dituzte, eta finalerako sailkatu dira. «Finalean, asmoa da, borrokatu, eta behintzat podiumean sartzea», esan du Joxe Mari Agirre tiratzaileak. «Bi jardunaldi horietan ez gara nahi bezain gustura aritu, baja dezente izan ditugu-eta».

Emakumeen txapelketan liga jokatzeko dute, eta hiru jardunalditan lortzen dituzten puntuen arabera banatzen dira postuak. 500 kilotan, hasierako helburua podiumean sartzea zen. «Zail izango dugu, bosgarren postuarekin atzean geratu garelako, baina saiatuko gara, falta diren bi jardunaldietan erakusten, behintzat, hor egon beharko genukeela», esan du Otamendik.

Bi taldeek larunbatean izango dute saioa, Txurdinagan, Bilbon. Emakumezkoek bigarren jardunaldia izango dute, eta gizonezkoek finala.

Denboraldiaren bigarren zatian, zortzi tiratzaileekin aritzen dira, eta lehen zatian lauokarekin. Emakumezkoetan, hirugarren egin zuten lauokan. «Finalean sartzea lortu genuen, eta eman genuen itxurarekin gustura geratu ginen», esan du Otamendik. Zortzikokan, 540 kilokan, podiumean sartu eta hirugarren postua lortu zuten. Aurtengo denboraldia berezia izaten ari dela esan du Otamendik: «Baja dezente izan ditugu, eta nabaritzen da tiratzaile beteranoen falta. Egia da neska gazteak animatu zaizkigula eta, beraien ilusio horrekin kutsatuta, ari gara emaitza batzuk lortzen.

TIRATZAILEAK

Emakumezkoen taldea

Ainara Otamendi Elizalde, Andrea Aldazabal Merino, Oihane Sarasola Nosellas, Erestei Oiarbide Murua, Anne Belaunzaran Ildarreta, Onintza Iraola Tolosa, Nerea Zubelzu Igoa, Lierni Arozena Zubizarreta eta Alaitz Olano Sotil.

Gizonezkoen taldea

Joxe Mari Agirre Albizu, Lander Otermin Muniain, Imanol Otermin Muniain, Patxi Xabier Eizagirre Ucin, Galder Ajuria Pison, Aritz Goiri Azkuenaga, Oier Urkola Arotzena, Aritz Ugarte Munduate, Mikel Lizartza Colomo, Joseba Olanda Urrejola, Galder Gobantes Abrisqueta eta Mikel Lasuen Churrua.

Eta hori baino garrantzitsuagoa: ikasten ari gara».

Gizonezkoetan, lau tiratzaileekin jokaturako txapelketetan, 320 kilotan, irabazi egin zuten eta, 300 kilotan, hirugarren izan ziren. Zortzi tiratzaileekin orain arte jokaturako txapelketetan, 680 eta 640 kilotan, bietan bigarren egin dute. Balantze «nahiko ona» egin du Agirrek, orain artekoaz: «Taldea osatu ezinik aritu



Ibarra taldeko tiratzaileak, Txurdinagan, otsailaren 9an. POTRONKO



Txurdinagan, otsailaren 9an, Ibarra taldeko tiratzaileak. POTRONKO

ginen hasieran, azkenean osatu ahal izan dugu, eta emaitzekin oso gustura gaude».

Datorren martxoaren 9an izango dute, ibartarrek, azken txapelketa: mistoa. Lau emakumezko eta lau gizonezko osatzen dute taldea. Horrekin bukatuko dute denboraldia eta, ondo-

ren, irailean hasiko dira, berriro, martxan. Otamendik zein Agirrek deialdia egin dute sokatira taldean parte hartzeko: «Etor-tzen diren guztiak gustura hartuko ditugu. Beti atea irekita dago, eta jendea animatzen dugu sokatira probatzera. Harrapatzen zaituen kirola da».

XXII. Aiztondo Pilota Topaketa, hastear

Erredakzioa

Beste urte batez, Aiztondo bailarako herrietako pilota klubek antolatuta, eta Aiztondo Mankomunitatearen eta Villabona eta Asteasuko udalen babes ekonomikoarekin, egingo dute XXII.

Aiztondo Pilota Topaketa. Aurtengo Aiztondo bailarako herrietako 125 neska-mutilek parte hartuko dute, eskuz zein palaz ospatuko den topaketan. Datorren asteburuan hasiko dira, eta astero partidua izango dira, Aiztondo bailara osatzen duten sei herrietan. Finalak, aurtengo Larraularen jokaturako dituzte, apirilaren 13an.

Partidak honako herri, egun eta ordutegietan jokaturako dituzte: Alkizan, igandetan, 10:00etan hasita; Adunan, ostiraletan, 19:00etan hasita; Asteasun, ostegunetan, 17:00etan hasita; Larraularen, ostiraletan, 18:00etan hasita; Amasa-Villabonan, ostiraletan, Amasako frontoian, 18:00etan hasita; eta, Zizurkilaren, ostiraletan, 18:00etan hasita.

Partidak honako herri, egun eta ordutegietan jokaturako dituzte: Alkizan, igandetan, 10:00etan hasita; Adunan, ostiraletan, 19:00etan hasita; Asteasun, ostegunetan, 17:00etan hasita; Larraularen, ostiraletan, 18:00etan hasita; Amasa-Villabonan, ostiraletan, Amasako frontoian, 18:00etan hasita; eta, Zizurkilaren, ostiraletan, 18:00etan hasita.

Finalerdiak jokoan, asteburu honetan, V. Torneo Nazionalen

Erredakzioa Tolosa

Datorren asteburuan Tolosako Beotibar frontoian Euskal Herriko klubaren arteko V. Torneo Nazionalaren bi finalerdiak jokaturako dituzte. Maila handiko partidak ikusi ahal izango dira.

Larunbatean, otsailak 23, 19:00etan, Oberena eta Hernani

klubek jokaturako dute lehenengo finalerdia. Oberena taldeak, lau eta erdian, Igantzikok Oian Kanabal ariko da, banaka frontoi osoan Garcia, eta binakakoan Unai Mata eta Aldabe. Hernanitik lau eta erdian Ojuel, banaka frontoi osoan Arrieta, eta binakakoan Urkizu eta Labaka.

Igandean, otsailak 24,

17:00etan, Ultzamako Buruzgain eta Irurtzun aurrez-aurre bigarren finalerdian. Buruzgain elkartetik lau eta erdian Iriarte, banaka frontoi osoan Unai Astiz, eta binaka Iñigo Larunbe eta Andoni Gaskue. Irurtzun elkartetik, lau eta erdian Olazabal, banaka Ongai, eta binaka Ollo eta Bergara.

Gogotsu eta indartsu



Aulkitik

Garazi Arregi Leon

TEEP Samaniego Orixe

Igandea, eta goizeko 11:15ean partida Lasarten. Espero bezala, gure lehen erreakzioa: «Igandea? Parrandarik gabe larunbatean, benetan? Bai bai!». Hortxe abiatu ginen, batzuk ondo deskantsatuta, eta beste batzuk lo edo aje aurpegia disimulatu ezinik, baina, beti bezala, umore onez eta gogotsu.

Egiten zuen eguraldi paregabea kontuan hartuta, berotzen hasi eta nahiko izerdi bota genuen, partida hasi baino lehen. Ondo berotuta, betiko urduritasunarekin jolastera atera, eta in-

artsu hasi ginen. Ondo baino hobeto eutsi genion lehen zatiari, baina, partidua aurrera joan ahal, eta animo aldetik gure momentu hoberenean ez geundela aprobetxatuz, gure ginetik jarri ziren aurkariak. Hala ere, ez genuen amore eman, eta partidua berdintzeko aukera ugari izan genituen, azkenean markagailuan 4 eta 1ekoarekin amaitu bagenuen ere.

Lortutako emaitzarekin ez oso gustura, baina bai egindako lanarekin. Ez ziren gutxi izan partidua ikustera etorri zirenak eta, denek, bukaeran, mezu bera: irribarrea eta ondo egin genuenaren keinu ugari. Taldekideok eta *Garrri*, sentsazio positiboekin. Seinale ona.

Orain, guran konfiantza izaten jarraitzea eta, balio duguna erakusteko, falta zaigun bultzada txiki hori entrenamenduetan lantzea besterik ez zaigu falta. Gutxika aurrera goaz, neskak! Harro, izan dugun eboluzioaz! Aupa Orixe!



OSTEGUNA, 2019KO OTSAILAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatx, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Informatikaren unibertsoak ere badu lekua 'Ataria'n

Tolosalde Lanbide Heziketa Institutuko ikasleek ere parte hartu dute 'Erakutsiz ikasi' proiektuan, eta erredakzioa bisitatu dute



Tolosalde LHko informatika zikloko ikasleak, TOLOSALDEKO ATARIAren atarian. J. ARTUTXA

Erredakzioa Tolosa

TOLOSALDEKO ATARIAren lana erredakziotik kanpo da ikusgarriago, normalean. *Erakutsiz ikasi* proiektuak, ordea, horri buelta eman, eta eskualdeko ikasleak bertaratzeko dituz Tolosako San Esteban auzoko bulegora, tokiko komunikabidearen egunerokoa ezagutzera.

Tolosalde LHko informatika zikloko ikasleak izan dira azkenak eta, erredakzioa eta euskarri guztiak ezagutzearekin batera, *Pasahitza* saioan ere parte hartu zuten, beren ikasketek eta esperientziek aritzeko.



'Pasahitza' saioan aritu ziren, ikasketek eta aurreikuspenek. R. CALVO

OSTEGUNA 21

AGENDA

Deialdiak

Aduna. *El poder de la esperanza* aurtismoari buruzko liburuaren aurkezpena, 18:30ean, kultur aretoa.
Alegia. Balebereren eskutik, ipuin kontatzea, 17:00etan, liburategian.
Ibarra. Kaldereroen entsegua, 18:00etan, plazan.
Larraul. Venezuelari buruzko hitzaldia, 19:30ean, Katilu Txulon.
Zizurkil. Korrikabatzordearen bilera, 18:30ean, Atxulondon.
Tolosa. Seme-alabei eta interneti buruzko hitzaldia, 19:00etan, pleno aretoa.
Tolosa. 20:30etik aurrera, kontzertuak Bonberenean: Oma eta G.W SOK.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Antzeko giroa eta tenperaturen gorakada. Hego/hego-ekialdeko haizeak tenperatura koska bat igoko du: erdiko orduetan 18-20 gradu. Zeruak ez du batere aitzakiarik izango. Giro eguzkitsua izango dugu egun osoan, goi-hodeikaren bat salbu.

Bihar. Beste egun batez jarraian, giro egonkor eta eguzkitsua. Tenperaturak urte sasoi honetarako altuak. Maxi-moak igo egingo dira: erdiko orduetan 19-21 gradu eta, Tolosaldeko txororik beroenetan, 22-23 gradu ere bai. Goi-hodeikaren bat salbu, egun osoan giro eguzkitsua eta oso epela izango dugu.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, solasaldia gazteekin, Joxemari Iturralderekin Astero liburu bat, Quark zientzia atala eta Josu Lopez-Gazpio kimikaria.
11:00. Hamaiketako. Tolosako berriak.
12:00. Entzuteko jaioak.
13:00. Erakutsiz ikasi. Eskualdeko ikastetxeetako ikasleekin osatutako saioa. Gaurkoan, Anoetako ikastola.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. Erakutsiz ikasi. Eskualdeko ikastetxeetako ikasleekin osatutako saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Kantari Donostia 5. saioa
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Ajoarrieroa (Urko Aristi)
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. Telefono zenbakia: 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amartz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 51 18.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

'Artea dastatzu kata maridatua'
SagarArtek antolatua
bi sarrera bikoitz zozketan

Martxoak 1, ostirala 19:00 • Zizurkil, Itsasontzi baten, Egarri taberna.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

Martxoaren 16a larunbata, arratsaldeko 16:00etan eta 18:30ean, Tolosako Leidor antzokian

Bi saioetan azken 250 sarrerak salgai
Otsailaren 18tik 22ra eta 25tik 27ra atariaren bulegoan salgai: 10:00-17:00

Eserlekuak zenbakituak izango dira eta bakoitzaren salneurria 8

Antolatzailea: Tolosaldeko Ataria
(San Esteban auzoa, 20, Tolosa 943 65 56 95 - ataria@ataria.eus)